

## HIZKUNTZA ETA KULTURA ANIZTASUNA BILBOKO ESKOLETAN. EUSKARAREN ERABILERAN ETA EUSKAL KULTUR PRAKTIKAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK

**Tesiaren egilea:** Naiara Berasategi Sancho

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

**Saila:** Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia

**Tesi-zuzendaria:** Mari Jose Azurmendi Aierbe eta Miren Nekane Larrañaga Aizpuru

**Tesiaren laburpena:**

Egungo gizarteetan, geroz eta ohikoagoa da egoera eleaniztun eta kulturantzunak topatzea. Oro har, mundu-mailako ikuspegitik gizarteak gero eta pluralagoak dira eta gaur egun nekeza da elebakartasunez edo kultur bakartasunez hitz egitea; nahiz eta errealitateak askotarikoak diren, gizarteak ere geroz eta eleaniztun eta kulturantzunagoak direlako.

Hizkuntza- eta kultura-ukipen egoera Euskal Herrian ez da berria, urte asko baitaramatza euskarak espainierarekin eta frantsesarekin batera bizirauten. Egoera horretan hizkuntza berriak ere sartu dira, eta Euskal Herria aniztasun horren adierazle ere bada. Etorri berrien kopurua gero eta handiagoa da, eta nahiz eta oraindik beste zenbait lurralderekin konparatuz baxua izan (Katalunia, esaterako), hizkuntzen eta kulturen presentzian eragin nabaria du. Euskal Herriko kaleetan, euskara, frantsesa eta espainiera ez ezik, bestelako hizkuntzak ere entzuten dira: wolofera, errumaniera edo tamazight, adibidez. Egoera horretan, euskarak iraun dezan nahi bada, eta bestelako hizkuntzek ere beren presentzia izan dezaten nahi bada, horretarako bideak urratu beharko dira.

Euskal eskola ere aniztasun horren adierazle da, eta ezin da ukatu eskola ere erronka handi baten aurrean dagoela. Euskararen normalizazioaren bidean oraindik ere egiteko handia du eskolak, ikasleak elebidunak (eta are eleaniztunak ere) izan daitezen. Hortaz, garrantzitsua izango da bide horretan plangintza, proiektu, programa... egokiak garatzea, benetako elebitasun hori lortzeko bidean. Bestalde, etorri berrien benetako integrazioa gerta dadin, ezinbestekoa izango da etorri berriek bertako hizkuntzak barneratzea, baina, aldi berean, beren hizkuntza eta kultura ere neurriren batean mantenduz. Eta hori sustatzeko pausoak eman beharko dira.

Testuinguru horretan, doktorego-tesi honen nahia da ikasleen praktika linguistiko (euskara, espainiera eta beste hizkuntza batzuk) eta kulturalak aztertzea. Zehatzago, euskararen erabilera eta euskal kultur praktika nolakoak diren aztertu nahi da, eta praktika horietan zein faktorek eragiten duten, baita etorkizuneko hizkuntza- eta kultura-plangintzarako egokiak izango diren bideak urratzea ere.

Metodologiari dagokionez, lehenengo ikerketaren helburuak zehaztu ditugu eta ondoren ikerketaren bidez erantzuten saiatuko ginen hipotesiak eta ikerketa-galderak. Aztertutako lagina Bilboko 13 ikastetxetako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan (565 ikasle) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailan (424 ikasle) ikasten ari diren ikasle autoktono (832 ikasle) eta etorkinek (145 ikasle) osatu dute. Ikasle horien hizkuntza eta kultur praktikak jasotzeko eta horietan eragiten duten aldagaiak identifikatzeko nahiarekin, galdera itxi eta irekiz osatutako galde-sorta bat diseinatu da.

Emaitzek diote ikasle etorkinen eta autoktonoen artean aldea nabaria dela euskararen erabilerari dagokionez, azken horien kasuan nabarmen jaisten baita euskararen erabilera. Ikasle horientzat, era nabariagoan, eskola bihurtzen da euskararen erabilerako gune bakarra. Baina ikusi dugu eskolak bere mugak dituela; izan ere, eskolatik aldentzean, erabilera hori nabarmen jaisten baita aztertutako bi taldeen artean. Euskararen erabilerak babesa duen gunean erabiltzen dute euskara gazteek, eta gune horretatik aldentzean, gizartean, eta kasu honetan Bilbon, nagusi den espainieraren erabilerara jotzen dute. Aztertutako aldagaien artean (sozio-demografiko, linguistiko-kultural, psiko-sozial eta psiko-pedagogikoak), aldagai linguistiko-kulturalak eta psiko-sozialak (motibazioa eta identitatea) izan dira euskararen erabilera eta euskal kulturaren ezagutza gehien baldintzatu duten faktoreak.

Egoera horri aurre egiteko, garrantzitsua litzateke ikasleen euskararen erabilera bultzatzeko, eta ahozkotasuna lantzeko, guneak zabaltzea, dauden solasaldi gunez baliatuz eta berriak sortuz, eta, bide horretan, eskolaz kanpoko jarduerak izan daitezke jomugetako bat. Ikasle etorkinen kasuan, dituzten zailtasunak nabariagoak dira, besteak beste, matrikulatzen diren ereduak ez baitie laguntzen euren euskalduntzean. Zentzu horretan, eskolatik bitartekoak jarri beharko dira ikasle horiek ere, hizkuntzei dagokienez, aukera berdina izan ditzaten, eta elebidun edo eleaniztun bihurtu daitezkeen. Bestalde, ikerketan ikusi dugunez, kultura-ezagutzak zein -praktikak garrantzia du hizkuntzen eta, zehazki, euskararen erabileran. Baina eskoletatik egiten al dira jarduerak eta programa zehatzak kulturak lantzeko? Galdera horri erantzutea litzateke lehengo pausoa, baina erantzuna ezezkoa den kasuetan, neurriak hartu beharko liriteke eta tokian tokiko programa zein jarduerak diseinatu. Bide horretan garrantzitsua izango da eskoletatik hizkuntza gutxituekiko eta kultura gutxituekiko begirunean oinarritutako gizarte eleaniztun baterako ikuspegia sustatzea.

Hizkuntza edo kulturen irakaskuntzarekin batera, garrantzitsua izango da hizkuntza eta kulturekiko jarrera eta motibazio positiboak garatzea. Ikusi dugun bezala, jarrera eta motibazioak ere hizkuntzaren eta kulturaren praktikarentzat faktore garrantzitsuak dira. Hortaz, garrantzitsua litzateke eskoletan jarrera eta motibazioaren gaia era planifikatuan jasotzea, curriculumaren barruan eduki beharko lukeen tokia aitortzea, eta horiek gelan aurrera eramateko unitate didaktikoak sortzea, neurriren batean.

Bukatzeko, eskolako alderdiari eta alde didaktikoari ere eman nahi genieke garrantzia, jakina baita metodologiak, ikasgelako jarduerak, gelako klimak, curriculumak... eragina dutela hizkuntzaren erabileran; hortaz, metodologia kooperatibo eta parte-hartzaileak bultzatzea garrantzitsua izango da, ikasleetatik abiatuz, haien parte-hartzea bultzatuz eta ahozkotasuna landuz.